

# Maite ditut animaliak eta landareak



4

**gurasoak**  
Lagunduz


## EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna:	<b>Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)</b>
Pedagogi diseinua:	<b>Begoña Martinez (HABEko teknikaria)</b> <b>Sabin Zabala (HABEko teknikaria)</b>
Errealizazio didaktikoa:	<b>Xabier Elortza (HABEko teknikaria)</b> <b>Alex Mungia (HABEko teknikaria)</b>
Ikastunitatearen egilea:	<b>Ainhoa Ezeiza (Legazpi 6 euskaltegia)</b> <b>Joseba Ezeiza (Legazpi 6 euskaltegia)</b>
Errealizazioa:	<b>Juan Miguel Gutierrez (HABEko teknikaria)</b>
Irudia eta diseinu grafikoa:	<b>Aitor Amutxastegi (HABEko teknikaria)</b> <b>Sabin Arzelus (HABEko teknikaria)</b>
Idazkariak:	<b>Mertxe Salegi (HABEko idazkaria)</b> <b>Beatriz Iturrioz (HABEko idazkaria)</b>

© HABE 2001. ISBN 84-95827-10-7 (liburuxka honena)

© HABE 2001. ISBN 84-95827-00-X (sail osoarena)

Legezko gordailua: SS-89/02

Inprimaketa:  **gertu**. oñati. tfnoa: 943 78 33 09.

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Donostiako Legazpi 6 euskaltegiari materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak:  **eragin** | [www.eragin.com](http://www.eragin.com)

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Donostiako Ikasbide ikastola eta, bereziki, Nekane Mendi irakaslea (argazkiak). 2001.

Donostiako Oleta ikastetxeko Erik C., Erik F., Nerea F. eta Jonathan. 2001.

Animaliak. Nire lehen entziklopedia CD-ROMa. Elhuyar Kultur Elkarte. 1998.

Hazi zeure zuhaitzarekin batera. Zuhaitz eguna 98. Gipuzkoako Foru Aldundia. 1998.

Matematika-3. J.M. Goñi. Elkarlanean-Ikastolen Elkarte. 1993.

Matematika-4. J.M. Goñi. Elkarlanean-Ikastolen Elkarte. 1993.


Oporretako Koaderno 5. Ikastolen Elkarte-Elkarlanean. 1995.

Ingurunea-6. J. Lasa, M. Arregi eta Txiliku. Elkarlanean-Ikastolen Elkarte. 1994.

Ipuinen tailerra. Seve Calleja eta Antton Irusta. Labayru Ikastegia. 1999.

Zuhaitz baten historia. M. Angels Gardella eta Joan Antoni Poch. Elkar. 1988.

# Maite ditut animaliak eta landareak



4

**gurasoak**  
Lagunduz

# AURKIBIDEA

## 1. SARRERA

- 1. Lan-egitasmoa **6**
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea **7**

## 2. ATAZAK

- A. ataza: Zer dakigu beste izaki bizidunei buruz? **8**
- B. ataza: Animaliak ezagutzen **16**
- C. ataza: Landatu zuhaitz bat **26**

## 3. MATERIAL OSAGARRIAK

- A. Hauek bai buruhaustek! **36**
- B. Besterik nahi? **42**

## 4. AUTOEBALUAZIO-ORRIA **48**

## 5. ERANSKINAK

- 1. Animaliak CD-ROMaren gidaliburua **50**

## 1. LAN-EGITASMOA

Haurrak ez dira nekatzen beren ingurura begiratu eta gauza berriak aurkitzen. Bestalde, garrantzitsua da ulertzen joatea zein den gizakiaren tokia luraren ekosistema konplexuan.

Horrekin batera, zientziaren kultura eta garrantzia zein den ohartzen hasiko da; hain zuzen, gizarte modernoaren zutabe nagusia baita.

Baina zientzia ez da soilik ezagutza-multzo bat; zientziak badu bere hizkuntza, eta haurrak poliki-poliki ikasiko du gai havei buruz zehaztasunez jardun behar dela.

Gurasoontzat hau erronka bikoitza da. Batetik, askotan, geure ezagutzak eguneratu egin behar ditugu, geure seme-alabei laguntza emateko. Izan ere, zenbat gauza aldatu diren eskolan izan ginenetik!

Bestetik, euskaraz eskolatuak izan ez bagara, batzuetan "hitzen falta" igarriko dugu, nolabait.

Unitate honetan, Lehen Hezkuntzako maila guztietan jorratzen den gai baten gainean arituko gara:

animaliak eta landareak. Gai horretaz jarduteko baliabide batzuk eskuratuko ditugu, eta, bide batez,

natur zientziei buruzko azalpenak emateko zaindu behar diren hainbat kontu ere landuko ditugu.

Helburua hau da: geu trebatzea, geure seme-alabei azalpen argiakoak emateko, eta funtsezko irizpide batzuk ezagutzea, haurrek beren lanak hobeto egin ditzaten.

**A ATAZAN** gaiarekin lotutako oinarriko hiztegia landuko dugu. Zientziarekin lotutako gaiak hiztegiaren ezagutza ona eskatzen dute. Hitz egokien faltan, nekez egingo dugu azalpen argirik.

**B ATAZAN** animaliez jardungo dugu. Izan ere, geure seme-alabek hitzaldi bat prestatu beharko dute, taldearen aurrean aurkezteko; horrela, bada, nahiz eta hainbat euskarri erabili beharko dituzten (diagramak, fitxak...), azalpena ahoz egin beharko dute. Nola lagunduko diegu, aurkezpen txukun bat egin dezaten?

**C ATAZAN** landareak eta zuhaitzak izango ditugu hizpide. Foru Aldundiak, zuhaitzaren eguna dela eta, HAZI ZEURE ZUHAITZAREKIN BATERA proiektua eratu du, eta zeuen seme-alabak buru-belarri ari dira horretan. Beste gauza batzuen artean, ipuin bat idatzi beharko dute.

Bestalde, **MATERIAL OSAGARRIETAN** zera aurkituko duzue:

- HAUEK BAI BURUHAUSTEAK! atazan gaiarekin lotutako hainbat jarduera matematiko.
- BESTERIK NAHI? atazan animaliak eta landareak protagonista dituzten ipuinez arituko gara.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA • Ikastunitatearen helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena. (6. or.)

#### A ATAZA: ZER DAKIGU BESTE IZAKI BIZIDUNEI BURUZ?

- Ezagutzen dituzten animalien eta landareen izenak zerrendatu eta sailkatu.
- Arrak, emeak eta kumeak izendatzeko ohiko izenak bildu.
- Animalien hotsak izendatzeko hitzak identifikatu.
- Zuhaitz eta landare ezagunenak irudietan identifikatu eta izendatu.
- Bizitzaren zikloan esku hartzen duten izakien zeregina izendatzeko hitzak irudi batean jarri.
- Bizitzaren zikloaren irudia ahoz azaltzeko estrategia bat hautatu.
- Irudiarekin batera doan azalpen-testuan hutsuneak bete, hitz egokiak erabili.

(8. or.)

MINTZ/IRAK

#### MATERIAL OSAGARRIAK

##### A) HAU EK BAI BURUHAUSTEAK!

- Logika-joko batzuk egin.
- Neurriekin eta unitate-aldaketekin zerikusia duten buruketak egin.
- Oinarrizko eragiketa matematikoak egitea eskatzen duten buruketak egin.

(36. or.)

IRAK / MINTZ

#### B ATAZA: ANIMALIAK EZAGUTZEN

- Eskolako lanaren helburuen zerrenda antolatu; lanaren eskema aztertu eta moldatzeko proposamenak egin.
- Diagrama bat osatu animali talde nagusiak izendatzeko hitzak erabiliz (narrasti, ugaztun...), eta haurrek prestatutako hainbat testutan dauden okerrak identifikatu.
- ANIMALIAK CD-ROMaren gidaliburua aztertu, eta identifikatu ikono bakoitzaren esanahia; argitu CD-ROMa erabiltzeko oinarrizko jarraibideak.
- CD-ROMak katuari buruz dakarren informazioa aztertu, eta haurrek egindako hainbat lanetan desegokitasunak identifikatu.
- Bideo-erreportajea entzun, eta eztabaidatu haurrak hartutako oharrak zuzenak diren ala ez.
- Zenbait esaera zaharren esanahia argitu.
- Ahozko azalpena egiteko hainbat irizpide eztabaidatu, haurrei orientabideak emateko.

(16. or.)

IRAK/MINTZ/ENTZ

#### B) BESTERIK NAHI!

- Ipuinak kontatzeko moduak alderatu; aditu jarraibideak ulertu eta eztabaidatu.
- Txandaka, ozenki irakurri alegia klasiko batzuen amaierako olerkiak, eta asmatu zein alegiari dagozkion.
- Ipuin baten ilustrazioak emanda, gidoia asmatu, jatorrizko ipuina entzun, eta proposatutako gidioarekin alderatu.
- Ipuinak asmatzeko hainbat teknika jarraibideak ulertu, eta, horiei jarraiki, ipuin laburrak asmatu; alderatu haur batzuek asmatutakoekin.
- Ipuin bat irakurri, eta identifikatu bertan ipuin-kontalari trebea izateko ematen diren aholkuak.

(42. or.)

IRAK/ENTZ/ENTZ

#### C ATAZA: LANDATU ZUHAITZ BAT

- Zuhaitzen aldeko kartel bat egiteko aukerak aztertu.
- Proposamenik egokiena hautatu, esku-orri batean falta diren testu-zatiak osatzeko. Alderatu jatorrizko testuarekin.
- Esku-orriari jarraipena emateko bi proposamen alderatu, eta eztabaidatu zein den egokiena.
- Ipuin baten hasierako lau paragrafoak ordenatu; amaierako proposamen bat egin, eta jatorrizkoarekin alderatu.

(26. or.)

IRAK/MINTZ/IDAZ

#### AUTOEBALUAZIO-ORRIA

(48. or.)

## ZER DAKIGU BESTE IZAKI BIZIDUNEI BURUZ?

Haurrek ikusmin izugarria izaten dute animaliekin, eta txundituta gelditzen dira landareak eta zuhaitzak nola hazi eta aldatzen diren ikustean. Hori dela eta, haur gehienek interes handiz irakurri ohi dituzte animaliei eta landareei buruzko liburu, ipuin, fitxak...

Horrela, bada, haur askok jakingo dute animaliak eta landareak euskaraz izendatzen, baina geuk, ordea, ez. Eta hori eragozpen handia izaten da, haiek egiten dituzten galderari erantzuteko edota egin behar dituzten lanetan laguntzeko.

Eskolan, bestalde, normala da animalien izenak gogoratu eta ikasteko jarduerak egitea. Hona hemen hainbat, egiten dituztenen erakusgai.



1

Gaur egun –hirietan, bereziki–, ez ditugu animaliak eta landareak beste garai batzuetan edota baserri-giroko jendeak bezain ongi bereizten. Normalean, oster, badakigu, adibidez, "jinetak" entzuten dugunean, animalia bati buruz ari garela, edota "avena" esaten dutenean, ordea, zereal batez ari garela. Horrela al da euskaraz ere? Ikus dezagun.

- Denon artean egin ezagunak egiten zaizkizuen animalia eta landareen izenen zerrenda. Euskaraz nola esaten diren ez badakizue, hiztegia erabili. Ondoren, taldeka jarri, eta sailkatu; horretarako, jar itzazue dagokien multzoan.

Untxia, ziza, txerria, azeria, balea, haritza...

itsasoko animaliak

loreak

onddoak

zuhaitzak

zomorroak

animalia lurtarrak

heGaztiak

etxeko eta baserriko animaliak

2

Euskaraz zenbait animaliak izen ezberdina dute sexuaren eta adinaren arabera. Bestalde, animaliek egin ohi dituzten hotsak ere modu berezian izendatzen dira. Ezagutzen al dituzu?

- Hemen dituzu hainbat animalia izenak. Osatu bakoitzean falta dena.

<b>ARRA</b>	<b>EMEA</b>	<b>KUMEA</b>
Aketza, apotea, urdea	Txerrama, urdanga	
	Ardia	
	Behorra	Moxala, pottoka
Zezena		
		Txita
Akerra		

- Jarraian bildu dugu nola esaten zaien euskaraz zenbait animalia izenak. Zein animaliak egiten du...?

**Orro / Uhuri / Ulu / Marru / Miau**  
**Zaunka / Kurrinka / irrintzi / Arrantza**  
**Txorrotxio / Bee / Marraka / Marru**  
**Kokoriko / Karaka**



- Hitz hauekin eta antzeko beste batzuekin jolas egin nahi baduzu, eskuratu ELHUYAR elkarteak argitarata emandako ANIMALIAK CD-ROMa, eta jo ezazu bertan dagoen jolas-parkera.

## 3

- Haurrek, oro har, izugarri maite dituzte animaliak eta gehienek eduki nahi izaten dute baten bat etxean.
  - Ba al duzue animaliarik etxean? Zein?
  - Ez baduzue, adierazi zergatik.
- Haur gehienek nahikoa dute txakur txiki bat, arrain bat edota katu bat etxean izatearekin; batzuek, ostera, ez ohiko animaliak nahi izaten dituzte. Entzun horrelako animaliak zaintzeari buruz albaitari batek dioena. Adierazi jarraian dituzun animalia horietakoren bat izango zenukeen edo ez. Aipatu haurrari emango zenizkiokeen arrazoiak.



- Euskal Herrian badira oraindik nekazaritza-inguruneak, baina haur gehienek baserria landa-eskolen bidez baino ez dute ezagutzen. Beste gauza batzuen artean, ez dute oso garbi zertarako hazten diren animaliak. Zertarako baliatzen dira honako animaliak baserrietan?





TXERRIAK, BEHIAK, OILOAK  
OILARRAK, IDIAK, ASTOAK, OSTRUKAK  
OREINAK, AHATEAK, UNTXIAK, KATUAK  
TXAKURRAK



13

- Animalia basatiek haurren jakin-mina pizten dute, eta, jakina denez, oso gustura ikusten dituzte animaliei buruzko erreportajeak eta programak. Euskal Telebistan animaliei buruzko "DENOK BIZI GARA HEMEN" programa ematen dute. Programa amaitzeko, animalien hainbat irudi erabiltzen dira, musikaz lagundurik. Programaren arduradunek horietako bat hautatu nahi dute programaren goiburu moduan, eta, horregatik, eskatu diete haurrei botoa emateko baten bati.
  - Ikusi programa amaitzeko erabiltzen den bideoa, eta zerrendatu bertan ateratzen diren animalien izenak.
  - Zeini uste duzue emango liokeela botoa zeuen seme-alabak? Zergatik?

4

- Oso ohikoa da geure etxeetan landareak izatea; are gehiago, balkoi edota lorategitxo bat baldin badugu. Adierazi nolako landareak dituzuen, zergatik gustatzen zaizkizuen...

- Geure inguruan (lorategietan, mendian...) erraz aurkitzen ditugu hainbat zuhaitz eta landare. Gazteleraz, seguru asko, ezagutuko dituzue horien izenak; baina, agian, ez dakizue ziurtasun osoz zein den beren euskarazko ordaina. Hemen dituzue horietako batzuk; ea ondo lotzen dituzuen gaztelerazko eta euskarazko izen guztiak!

**PAGOA**  
**ASTIGARRA**  
**ERRAMUA**  
**GAZTAINONDOA**  
**GOROSTIA**  
**SASIA**  
**PALMONDOA**  
**SAHATSA**  
**HARITZA**  
**LIZARRA**



**Castaño**  
**Roble**  
**Fresno**  
**Palmera**  
**Laurel**  
**Acebo**  
**Zarza**  
**Sauce**  
**Haya**  
**Arce**



- Gero eta gehiago zaintzen eta estimatzen da herri, kale, etxeen... inguruan zuhaitzak eta landareak egotea. Paisaiaren funtsezko osagai dira. Horregatik, zenbait txoko oso gustagarri egiten zaizkigu. Adierazi zein diren zeuei edota zeuen seme-alabei bereziki gustatzen zaizkizuen lorategi, belardi, baso, parke edota kaleak.



- Udalak lehiaketa bat proposatu du herrian: irudikatu herriko txoko berritu bat. Haurrak bultzatu nahi dituzte herriko paisaia beste modu batera imajinatzena.
  - Entzun aditu batek azaltzen dituen bi adibideak.

EZAUGARRIAK	BEREZITASUNAK
Asteasuko adibidea	
Baratzaren estetika	

- Taldeka jarri. Hautatu birmoldatu nahiko zenuketen herriko edota auzoko toki bat. Egin egokitzeko proposamenak.

## ANIMALIAK EZAGUTZEN


Hurrek azalpen bat prestatu behar dute animalia mota nagusiez. Lana taldean egingo dute; lehenbizi, gidoi idatzia prestatuko dute, eta, gero, denen aurrean aurkeztuko.

Irakasleak erne ibiltzeko esan die; kontua ez da testuak entziklopedietatik kopiatzea edota idatzitakoa "ozenki" irakurtzea. Horrela, bada, haurren ekarpena eta ahalegina ikusi nahi ditu lan horietan.



- Zeuen seme-alabaren taldekoek, lanean hasi baino lehen, jarraian duzen helburuen zerrenda erakutsi diote irakasleari. Irakasleak zerrenda hori modu logikoagoan ordenatzeko esan die. Nola ordenatuko zenukete zuek, zeuen seme-alabak kontuan hartuta? Eztabaidatu taldean, eta arrazoitu erantzuna.

1. Animaliei buruz gauza gehiago ikastea
2. Lana txukun eta hizki onez egitea
3. Gure artean ondo moldatzea
4. Hiztegia zabalitzea
5. Letra eta akats ortografikoak zaintzea
6. Lagunei hitzaldia ondo eta argi azaltzea
7. Gure gustuko gaia garatzea
8. Entziklopedietatik eta liburuetatik informazioa ateratzen ikastea



1

- Helburuen zerrendarekin batera, lanerako gidoi hau proposatu dute. Irakasleari, berriz, ez zaio oso egokia iruditu. Gainera, animali talde garrantzitsu bat falta dela jakinarazi die. Zer moldatuko zenukete plangintza honetan? Zer erantsiko?

1. Ugaztunak
2. Hegaztiak eta narrastiak
3. Animaliak orokorrean eta arrainak
4. Anfibioak



- Talde bakoitzean egindako hautua alderatzeko, joko erraz bat egingo dugu: **asmakizunen jokoa**. Batek animalia talde bat pentsatuko du, besteek galderak egingo dizkiote, eta berak BAI-EZ erantzuko du.

Adibidez: (Intsektuak)

- Ba al du bizkarrezurrik?
- **Ez**
- Artropodoa al da?
- **Bai**
- Bi pare antena ditu?
- **Ez**
- ...

- Arestiko diagrama erabilia, haurrek animalia talde nagusiak aurkezteko testuak prestatu dituzte, baina akats batzuk egin dituzte; hau da, esaten dituzten gauzetako batzuk ez dira zuzenak. Antzemango al diezu?

*Milio bat animalia espezie ezberdin baino gehiago daude, eta era askotara sailka daitezke: neurriaren arabera, ugaltzeko moduaren arabera, elikatzeko moduaren arabera, bizi diren ingurunearen arabera... Baina sailkapen nagusia ornodunen eta ornogabeen artean egiten da.*

*Ornodunen artean handiena bale urdina da eta txikiak saguzaharra eta satitsua dira. Bale urdina arraina da eta saguzaharrak eta satitsuak karraskariak (...)*

*Ugaztunak amaren sabeletik jaiotzen dira; ugaztunen gorputza ilez estalirik egoten da. Ugaztun guztiak burua, enborra eta gorputz-adarrak dituzte. Batzuek, gainera, buztana dute.*

*Ugaztunen gorputz-adarrak era askotakoak izan daitezke. Adibidez, behiek hantetan apatxak dituzte; saguzaharrek hegoak eta izurdeek hegala (...)*

*Hegaztiak animalia erruleak dira; gorputza lumaz estalirik dute. Hegazti guztiak hegan mugitzen dira. Asko itsasoan edota lakuetan bizi dira, baina habia egiteko lehorreko animaliak dira. Lehorreko animaliak dira. (...)*

*Arrainak ornodunak eta erruleak dira, hegaztiak bezala. Gorputza ezkatatzen estalirik dute, anfibioek bezalaxe. Narrastiekin ezberdintzen dira, uretan bizi direlako eta narrastiak ez.*

*Arrain batzuk ugaztunak dira (baleak eta orkak, adibidez). Beste batzuk bereziak dira eta ez dute ezkatarik, txipiroiek adibidez. (...)*

## KONTZEPTU-SAREAK

Zientzi kontuez jarduteko, hitz bereziak erabiltzen ditugu, eta horiek multzotan egon ohi dira antolatuta. Funtsezkoa da horien arteko harremanak argi izatea, okerrak eta gaizki ulertuak saihestu ahal izateko.

2

Animali talde nagusiei buruzko testuak prestatu ondoren, hainbat animalia jakinen fitxak egin behar dituzte hurrek. Horretarako, ELHUYAR-ek argitaratutako ANIMALIAK, NIRE LEHEN ENTZIKLOPE-DIA izeneko CD-ROMa erabiliko dute.

- Laukotetan antolatu. Bakoitzak CD-ROMaren gidaliburuan dauden informazio-fitxetako bat hartuko duzue. Fitxa horiek eranskinean dituzue. Irakurri egokitu zaizuena, eta, gero, denon artean argitu zertarako balio duten jarraian dituzuen ikonoek.



- Erantzun haurren ondorengo galdera hauei.

Zer egin behar dut behiaren fitxa aurkitzeko?

Argitu al dezaket zer den "eraldaketaren prozesua"?

Zer egin behar dut joko batetik fitxetara itzultzeko?

Itsasoan bizi diren ugaztunen berri izan nahi badut, nora jo behar dut?

Nola jakin dezaket zer esan nahi duen "katuak mihia jan" esaerak?

Zertarako da munduko maparen azpian dagoen iparrorratza?

Zertarako da sailkapen-pantailan dagoen argazki-kamera?

### BEGIA HAN... ETA GEZIA BERTAN

Euskarri berriek informazio asko eta orotarikoa eskaintzen digute. Dena da jakingarri, noski, baina dena al dugu beharrezko?

3

Geure haurrak KATUari buruzko fitxa bat prestatu nahi du, ikasgelan azaltzeko. ANIMALIAK CD-ROMean hainbat gauza aurkitu ditu, baina hizkeraren aldetik landu samarrak dira eskolako azalpenarako. Laguntza eskatu digu "bere hitzetara" moldatzeko.

- KATUAREN fitxa zabaldu, eta jarraian dugun testua aurkitu du.
- Irakurri, eta azpimarratu ulertzen zailak izan daitezkeen hitzak edo esaldiak. Proposatu gauza berberak esateko modu samurragoak.



**KATUA:** "Antzinako Egipton katuak gurtzen zituzten. Europara Erdi Aroan iritsi ziren, eta, gaur egun, zakurrarekin batera, gizakiek bizi den etxeko animalia arruntena da. Felido txiki hau ezin da nahi den bezala hezi, berak nahi duena egiten baitu beti. Zuhaitzetara igotzen oso trebea da, eta goitik bazterretara so geratzea atsegin du. Laztanten denean marrakaz hasten da. Katu emea oso ondo arduratzen da bere kumeez."

- Zeuen haurra saiatu da, eta testua honela moldatu du. Zer gustatzen zaizue? Zuen iritziz, zer aldatu beharko luke?

*Egiptiarrentzat katuak jainkoak ziren. Katua ez zen Europako animalia erdi-arora arte; txakurrarekin batera sartu zen eta gaur egun bi animalia hauek dira arruntenak dira geure etxeetan.*

*Katuek nahi dutena egiten dute beti; horregatik, ezin dira erraz hezi. Zuhaitzetan egotea gustatzen zaio baina bazterrean. Laztanten denean miauka hasten da. Katu emeak ondo zaintzen ditu bere kumeeak.*

- KATUAREN irudia sakatu, eta bideo bat ikusi du; ahotsak hainbat datu osagarri eman dizkio katuari buruz. Esandakoa korapilotsu samarra da, ordea, eta berak ohar hauek hartu ditu. Zuzenak ote? Entzun bideo-pasarteak, eta erabaki zein diren egia eta zein ez.

- Katu gehienak arrazadunak dira, eta geure etxe edo baserrietan bizi dira.
- Arrazadunen bi adibide hauek dira: katu pertsarrak eta Siamgo katuak.
- Hirietako eta baserrietako teilatuetan beti daude katuak.
- Katu guztiek dituzte atzaparrak ezkutaturik, eta, horregatik, oso isilak dira.
- Katuak ondo moldatzen dira toki argitsueta zein ilunetan; izan ere, begi-niniak asko zabaltzeko eta ixteko ahalmena dute.
- Katuak leku lasaiak aukeratzen ditu, lo egiteko.

- Gehiago jakiteko, sator txikia sakatu, eta informazio osagarria eskuratuko duzu. Oraingoan, katuaren ezaugarri batzuei buruzko fitxa bat eta katuekin zerikusia duten lau esaera.




- Esaera horiek zer esan nahi duten galdetu digu. Ba al dakizue zeuek? Zertarako erabiltzen direla uste duzue?
- Halako batean, ohartu zarete irudiak sakatuta esaeren inguruko azalpen bat entzuten dela. Entzun lau grabazioak, eta identifikatu zein esaerari dagokion bakoitza.

	ESAERAK
Lehen azalpena	
Bigarren azalpena	
Hirugarren azalpena	
Laugarren azalpena	

- Informazio guztia bilduta, azalpenerako gidoi bat prestatu behar du haurrak.

- Horretarako, lehenbizi, dauzkan datuak-eta sailkatu nahi ditu. Ez daki, ordea, nola multzokatu. Taldean jarrita, osatu behean duzuen kontzeptuen mapa. Nahi adina lauki erabili.



- Azalpena egiteko, gainera, informazio hori guztia modu logikoan antolatu beharko du. Nondik hasiko zenukete azalpena? Nondik jarraituko? Proposatu azalpenerako gidoi bat.

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- ...

- Eztabaidatu taldeetan egindako proposamenen artean zeinek jarraitzen dion hobekien irakasleak emandako leloari.

### KORAPILORIK EZ...

Testu-mota honetan oso garrantzitsua da emango ditugun xehetasunak modu logiko eta argian antolatzea.

- Aurrekoarekin batera, jarraian duzuen beste leloa ere eman die irakasleak hurrei. Horri jarraiki, egizue haurrari lagungarria izango zaion aholku-zerrenda bat.

### ... ETA AZALPENAK UGARI

Gauzak ulergarri egin behar ditugu. Ez dugu geure bururako hitz egiten!  
Zeinentzat ari garen, horren arabera egokitu behar geure hitz egiteko moldea.

25

## NOLA EGIN AHOZKO AZALPEN ARGIA?

- Ez ikasi dena buruz; ez du merezi.
- Ez irakurri idatzi duzuna hitzez hitz; aspergarria izango da.
- Uste baduzu hitzen bat ulertzen zaila izan daitekeela .....
- Ematen dituzun datuak eta informazioak argitzeko.....
- Nahastu egiten bazara....
- .....
- .....
- .....

## LANDATU ZUHAITZ BAT

Urtero bezala, Foru Aldundiek Zuhaitz Eguna antolatu dute. Aurten liburuxka didaktiko bat egin dute, zuhaitzak landatzeaz gain, eskoletako haurrek beste ekintza batzuk eta hainbat eztabaida egin ditzaten. Helburua zuhaitzek—eta geure bizitzan duten garrantziaz ohartzea da.



1

Lehen ekintza zuhaitzen aldeko kartel bat egitea izan da. Haurrak lanari ekin, eta ezinean dabil.

- Jarraian dituzun galderak egin dizkizu. Erantzun.

Kartelak ez al dira propaganda egiteko? Irakasleak nik zeren propaganda egitea nahi ote du, bada?

Zer esan daiteke zuhaitzen alde? Azken batean, nork ez ditu zuhaitzak maite?

Kartelean asko idatzi behar al dut? Nondik aterako dut informazioa?

Beharbada, hobereana izango da kartulina dotore bat erostea, eta, gero, plastifikatzea...

- Irakurri Hazi Zuhaitzarekin Batera izeneko gidaliburuan egiten duten proposamena. Bat al dator zeuk pentsatutakoarekin?

“Zuhaitzen adiskideak izateko biderik egokienetako bat da besteei ikusaraztea merezi duela haiiek ere zuhaitzen adiskideak izatea.

Besteak beste, kartelak egin ditzakezu, eta, haien bidez, zuhaitzen aldeko mezuak zabaldu: energia gutxiago kontsumitzeko, papera birziklatzeko, mendian zaramarik ez uzteko, zure herrian zuhaitz autoktonoak landatzeko antolatzen diren kanpainen parte hartzeko... Izenburu labur eta argi bat asmatu. Letra handiz eta kolore deigarritz idatzi. Aukeran, argazkiren bat ere jar dezakezu. Alde batetik erabiltako paperetan egin kartelak.

Leku ageri batean itsatsi, jende askok ikus ditzan.”



### HITZEN BIDEZ EKINTZARA BULTZATU

Jendea zerbait egiteko konbentzitu nahi dugunean, karteletan bezalaxe, oso garrantzitsua da asmatzea leloa, eman nahi dugun mezua ren mamia jasoko duen leloa.

Lelo hori geure testuaren izenburua izan daiteke; edota amaierarako utziko duguna.

- Hona hemen kartela egiteko erabil litezkeen hainbat irudi. Asmatu bakoitzeko lelo bat. Alderatu talde ezberdinen proposamenak, eta arrazoitu nork bere hautua.



2

Kartelaren osagarri, esku-orri bat idazteko eskatu die irakasleak. Hala ere, ez dute osorik egin behar; bakar-bakarrik osatu egin behar dute irakasleak "erdi-egina" emandakoa.

- Gelan haurrek hainbat proposamen egin dituzte. Irakasleak esan die etxean pentsatzeko zein ote den egokiena, testuaren pasarteetako bakoitza osatzeko. Irakurri, eta bat aukeratu.

**Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen, baina bizirik daude...  
BIZIRIK? Bai, eta horretaz hitz egingo dugu orri honetan.**

- A. Hala ere, ez dute minik sentitzen; horregatik, nahi bezala erabil ditzakegu.
- B. Hain zuzen, zaindu eta babestu egin behar ditugu, geure planetaren etorkizuna ziurtatu nahi badugu.
- C. Izan ere, jende askok ez daki zuhaitzak izaki bizidunak direla.

**Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute: fruituak, oxigenoa, zura, erretxina, itzala...**

**Izan ere, zuhaitzak desagertuko balira, gizakiok ezingo ginateteke bizi.  
Bestetik, animalia askoren babesleku eta elikagai dira.**

- A. Egia da hirietan, akaso, beste zeregin batzuk dituztela, baina munduko zuhaitz gehienak basoetan bizi dira, eta oso garrantzitsuak dira.
- B. Zoritarrez, animaliek zuhaitz asko hondatzen dituzte.
- C. Badaezpada ere, gizakiok asmatzen ari gara gauza berriak, zuhaitz gutxiagorekin bizi ahal izateko.

**Zaindu egin behar dugu natura, guztion ardura eta erantzukizuna da hori, eta ez nolana hiko.**

**Zuhaitzen bizitza hobetzeko zerbait egiten dugun bakoitzean, gizadi osoarentzat garrantzi handikoa den zerbait egiten dugu.**

- A. Edozein modutan, libre gara nahi dugun bezala jokatzeko.
- B. Horregatik, garrantzitsua da aldatzea geure jokabide kaltegarriak eta ahalegintzea oreka zaintzen.
- C. Beraz, gogoratu: ez moztu zuhaitzik mendian.

- Hemen duzu jatorrizko testua. Irakasleak "Hazi Zeure Zuhaitzarekin Batera" gidatik hartu zuen. Irakurri, eta alderatu zeuek aukeratutako esaldiekin. Antzekoak al dira?



*"Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen, baina bizirik daude... BIZIRIK? Bai, eta horretaz hitz egingo dugu orri hauetan. Zuhaitzak munduko landararik handienak dira, eta, gainera, haietako batzuk dira planetako izakirik handienak eta zaharrenak.*

*Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute: fruituak, oxigenoa, zura, erretxina, itzala... Izan ere, zuhaitzak desagertuko balira, gizakiok ezingo ginatkeke bizi. Bestetik, animalia askoren babesleku eta elikagai dira. Zuhaitz gehienak basoetan bizi dira, beste landare eta animalia batzuekin batera. Hala ere, haietako batzuk gure hiri eta herrietan hazten dira.*

*Zaindu egin behar dugu natura, guztion ardua eta erantzukizuna da hori, eta ez nolanhikoa. Zuhaitzen bizitza hobetzeko zerbait egiten dugun bakoitzean, gizadi osoarentzat garrantzi handikoa den zerbait egiten dugu. Horregatik, komeni zaigu zerbait gehiago jakitea gure inguruko zuhaitzei buruz, eta, gure ohitura kaltegarriak bazterturik, zuhaitzei bizirik irauten laguntzeko moduan jokatzeari."*

### BESTEEN GOGOIA ZEURE EGIN...

Nork bere ideiak indartzen baditu arazoizko argumentuak erabiliz, errazago ikustaraziko die besteei zein den arazoaren funtsa.

### ... ETA BEREN JOKAERA BIDERATU

Beharbada, jendeak ez du esaten diogunari buruzko zalantzarik izango,  
baina ez dute jakingo nola jokatu, edo zer egin...

Egin proposamen egingarriren bat, eta erakutsi denok egin dezakegula  
zer edo zer.

### 3

Esku-orriaren hasierako testu hori biribilduta, irakasleak eskatu die jarraipena emateko. Bigarren atal honetan proposamen zehatz bat jaso behar dute: zuhaitz bat landatzea.

Euskarri gisa Foru Aldundiak egindako gidaliburuan azaltzen den testua eman die irakasleak. Bertan, zuhaitzak landatzeko eman beharreko pausuak azaltzen dira.

- Esku-orrian zein xehetasun jaso eta zein baztertu erabakitzea izango dute lehenengo lana. Zeuen haurrak gorritz azpimarratu ditu funtsezkoak iruditu zaizkion kontuak. Irakasleak, ordea, esan dio gauza gehiegi direla. Zer gomendatuko zeniekete baztertzeke?



## HAZI ZEURE ZUHAITZAREKIN BATERA

Ikasi dugu zein garrantzitsuak diren zuhaitzak eta ingurugiroarentzat zein beharrezkoa den gu zuhaitzak zaintzeaz eta ugaritzeaz arduratzea. Horregatik, komenigarria da landatzen ikastea. Ekintza "zaila" da hau, eta heldu baten laguntza beharko duzu. Familiari eskatzen ahal diozu laguntza hori. Jarraian azalduko dizkizugun lau urratsak egin beharko dituzu.

### 1. urratsa: HAZIAK BATZEA

Haritz-ezkur batzuk hartu (urria eta azaroa dira hilabeterik egokienak), zuhaitzetik erori berriak. Leuna eta batere zulo-rik gabe eduki behar dute azala. Bazter itzazu txikiegiak edo berdeegiak direnak. Oihalezko zaku batean edo kutxa batean sartu, eta leku lehor eta fresko batean gorde.

### 2. urratsa: HAZITEGIAN EREITEA

Honakoa behar duzu:

- 1.- Ibaiko hondarra. Mintegietan edo eraikuntza-materialen biltegietan lortzen ahal duzue.
- 2.- Kutxa bat. Arrandegietan erabiltzen dituzten kortxo zurizkoak oso egokiak dira.

Ereiteko:

- 1.- Kupula kendu ezkurrei.
- 2.- 5 cm-ko hondar-geruza bat ipini kutxaren hondoan, eta ezkur batzuk jarri hondarraren gainean etzanda.
- 3.- Beste hondar-geruza batez estali ezkurrak.
- 4.- Leku epel batean ipini hazitegia. Heze egon behar du, baina putzurik gabe.

### 3. urratsa: ALDATZEA

Ezkurrak ernamuindu egingo dira bizpahiru hilabeteren buruan. Zabaldu, eta hazten hasiko dira sustraiak eta zurtoina. Lekuz aldatzeko sasoi da. Ortua edo lur-sail txiki bat da lekurik egokiena. 20 cm utzi behar duzue haritz batetik bestera.

Orturik ez badaukazue, esne-bricketara aldatu haritzak. Horretarako, humus ugaria daukan lurra bota (mendian edo loradendaren batean lortzen ahal duzue). Sustraiak lurpean sartu, zurtoina kanpoan utzita. Aire zabalean ipini landareak, Hegoaldera ematen duen balkoi edo leiho batean.

Noizean behin, landareak ureztatu, belar txarrak kendu eta ongarririk natural pixka bat bota.

### 4. urratsa: MENDIRA!

Garrantzi handikoa da ziurtatzea aukeratu duzuen lekua egokia dela haritzak landatzeko. Horretarako, udaletxera edo zentro espezializaturen batera joan horri buruzko informazioa eskatzera. Leku askotan, Zuhaitz Eguna ospatzen dute urtero; oso egun egokia izan daiteke zuen zuhaitzak landatzeko.

Haritz bakoitzaren alboan taket bat ipini eta horra lotu haritza –larregi estutu barik–, haizetik babesteko. Noizean behin, zuen zuhaitzak ikustera joan, lokarriak lasaitu, ureztatu eta ongarririk.

Lan ederra egin duzue, harro egoteko modukoa. Lagunei kontatu, eta zuhaitz gehiago landatzera animatu.

- Jarraian dituzue bi haur-taldek egindako proposamenak. Bietako bat ez zaio irakasleari gehiegi gustatu. Zein ote da? Zergatik?

### A TESTUA

*Bada gauza bat ia denok egin ahal duguna: zuhaitz bat landatu.*

*Bakarrik egiteko, beharbada, zaila izango da baina gurasoen laguntzarekin erraz egin daiteke.*

*Geuk proposatzen dugu haritz bat landatzea. Haritza bertako zuhaitza da eta gero eta eskasagoa.*

*Horretarako ezkurak beharko dituzue. Lehorrak daudenean kutxa batean jarri behar dira lur gainean. Gero pote batean jarri eta leku epel eta heze batean utzi lehen adarrak atera arte.*

*Bizpahiru hilabeteren buruan kanpoko aldera aldatu eta handitzen denean mendira eraman.*

*Ez da hain zaila, ezta? Ea animatzen zareten!*

*Izan zaitezte zuhaitzen lagunak.*

*June eta Gotzon*

### B TESTUA

*Zuhaitzen egunean arbola bat landatu beharko zenuke. Arazoa da hilabete batzuk lehenago prestatu behar dela dena eta orain ez dugula denbora nahikoa.*

*Horretarako hainbat gauza egin behar dira:*

- **HAZIAK BATU:** Ezkurak jaso behar dira eta lehortu.
- **HAZTEGIAN EREIN:** Hondar gainean jarri kutxa batean.
- **ALDATU:** Bizpahiru hilabeteren buruan ezkurak ernamuindu egingo dira eta lekuz aldatu behar dira.
- **MENDIRA!** Mendiko toki batean jarri.

*Lan ederra da eta harro egoteko modukoa. Lagunei kontatu eta zuhaitz gehiago landatzera animatu.*

*Ander, Arantza eta Eider*

4

Proiektu honetako azken lana hauxe da: ipuin bati amaiera ematea. Gelako kideek proposamenak egin behar dituzte, eta hoberena taldearen izenean bidali, lehiaketa batean parte hartzeko.

- Irakasleak, ipuina zertan den ondo ulertu dutela ziurtatzeko, ariketa hau proposatu die: ordenatzea ipuinaren lehen lau paragrafoak. Hementxe dituzue. Zein da ordena zuzena?

## Aitonaren antzera

Xabierrek zortzi urte bete zituenean, ardiak zaintzen laguntzeko eskatu zion aitak. Xabier pozarren zegoen, mendira joateko gogo bizia zuen eta. Eguzkiaren lehen printzekin batera atera ziren etxetik. Lagun izeneko euskal artzain-txakur bat zihoan haiekin, eta bizkor betetzen zituen aitaren agindu guztiak, buztanari eraginez.

Etxera heldu zenean, amari esan zion ezkur bat hartu zuela basoan, haritz bat landatzeko. Amak, ortuan lan egiten zuenez, asko zekien landareei buruz, eta zehatz-mehatz azaldu zion nola landatu behar zuen zuhaitza.

Egun hartan, animalia eta landare berri asko ikusi zituen Xabierrek. Bazekien nola ugaltzen ziren animaliak, behin baino gehiagotan ikusiak baitzituen bildotsak jaiotzen. Baina ez zuen oso ondo ulertzen nola jaiotzen ziren zuhaitzak. Izan ere, inork ez zituen landatzen, haiek baratzekeo piperrekin eta tomateekin egiten zuten bezala. Aitak, ezkur bat erakutsirik, azaldu zion nola, baldintza egokiak bilduz gero, haritz eder bat sortuko zen fruitu txiki hartatik. Xabierrek lurretik ezkur bat hartu eta poltsikoan gorde zuen.

Xabier sekula ez zen mendira joan aitarekin lan egitera. Gazteegia zen oraindik ardiak zaintzen laguntzeko. Etxean geratu ohi zen, eta amari laguntzen zion baratzean edo ukuiluan. Familia betidanik bizi zen mendi baten hegalean zegoen baserri batean. Naturak ematen zizkien bizitzeko behar zituzten gauza gehientsuenak.



- Taldeka, pentsatu ipuinari amaiera emateko modu bat. Azaldu zeuen taldeko kideei. Botoa eman, eta bat hautatu.
- Hala nahi izanez gero, idatzi amaiera hori azalduko duen paragrafoa. Saiatu jatorrizko testuaren estilora makurtzen.

### BESTE ERA BATEKO AKUILUAK

Betidanik ezagutu dira alegiak edota irakasbideak emateko ipuinak. Ipuin polit bat modu atsegina izan daiteke jendea jokabidez aldatzera bultzatzeko.

## HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

Animaliak eta landareak ez dira izaten, normalean, adin honetako haurren matematika-lanen ardatz. Hori bai, haurrek hain gustuko dituztenez, askotan, animaliak edota landareak erabiltzen dira, haurrek pentsatzen jartzeko.



1

Tartean logika-jokoak aurkituko ditugu. Hona horietako bi, zeuen burua pixka bat nekatu nahi baduzue.

- Joko honetan, lore bakoitza bere lorontzian eta apal egokian jarri behar da. Zaindu beharreko jarraibideak ez dira, ordea, nolanhikoak.

### Zer dago non?

Aldameneko hiru apal hauetan hiru lore daude: apal bakoitzean bat, eta kolore ezberdineko lorontzitan lore bana.


- Lehen apalean dagoen lorea ez da krabelina.
- Lorontzi urdina bigarren apalean dago.
- Krabelina ez dago lorontzi gorrian.
- Arrosa ez dago bigarren apalean, ezta lorontzi gorrian ere.
- Lorontzi gorrian dagoen lorea lehen apalean dago.
- Arrosa hirugarren apalean dago eta ez dago lorontzi urdinean.



	1. apala	2. apala	3. apala	Lorontzi urdina	Lorontzi gorria	Lorontzi horia
Geranioa						
Krabelina						
Arrosa						
Lorontzi urdina						
Lorontzi gorria						
Lorontzi horia						


- Beste joko honetan, berriz, sagu bat galdurik dago labirinto harrigarri batean. Bilatu erantzuna.
- Bide egokia aurkitzen duenak abisua eman dezala; orduan, besteek utzi egingo dute lana bere horretan.
- Bidea ezagutzen duenak ahoz eman ditzala instrukzioak ea lortzen duten besteek labirintotik ateratzea!

Lagun iezaiozu  
Biboteluzeri  
irtenbidea aurkitzen.



2

- Jarduera honetan, ikasleak baso baten barruan egin behar du ibilaldia. Bidean hainbat lan egin behar ditu. Taldeka jarri, eta proposatzen diren probak egin AHOZ. Ea zein taldek egiten dituen probak azkarren.



- Nikolasek ordubete eta bost minutu behar izan du basoko itzulia egiteko eta Bertin bere lagunak 75 minutu. Zeinek pasatu du denborarik gutxien? Besteak baino zenbat gutxiago?
- Basoan jolasean jarraitu dute. Oraingoan neurketak egiteari ekin diote. Zein unitate aukeratu ote dute neurketa hauek egiteko?

Zuhaitz baten altuera.

km  mm  m  cm

Basoan aurkitutako txindurriaren luzera.

m  km  mm  cm

Ogitarteko barruan duten urdaiazpikoaren pisua.

g  mg  kg  hg

Krispinen hartu behar duen jarabearen bolumena.

kl  l  ml  dal

- Aurrekoa bukatutakoan bost zuhaitzen zirkunferentziak neurtu dituzte:



171 cm

0.21 dam

17 dm

0.0011 km

684 mm

Adieraz itzazu guztiak metrotan.

- Ondoren, lagunek beren altuerak neurtu dituzte, baina ez digute adierazi zein unitatetan egin duten neurketa bakoitza. Ea zuk aurkitzen dituzun neurketa-unitateak!

Nikolas: 145

Bertin: 0.143

Krispin: 15.8

Buruzagia: 1850

- Arratsaldean, bukatzeko, zapaburuak bildu dituzte bolumen desberdinetako ontziak erabiliz. Pasa itzazu neurri horiek guztiak litrotara.



**154 cl**



**140 ml**



**5 dl**



**0.2 dal**


3

Hirugarren multzo honetarako utzi ditugu oinarritzko eragiketa matematikoekin zerikusia dutenak. Zer moduz moldatzen zara buruketekin? Proba egin euskaraz.

- Joko honetan, txanpon-makinetan bezala, frutek balio zehatza dute. Hori da asmatu behar dena kontuak eginez. Binaka jarri, eta ea erraz lortzen duzuen emaitza.

**Fruta bakoitzaren balioa asmatu. Balio horiek batuz atera dira laukiaren inguruan agertzen diren zenbakiak.**

	<input type="text"/>					<b>12</b>
	<input type="text"/>					<b>13</b>
	<input type="text"/>					<b>13</b>
	<input type="text"/>					<b>16</b>
		<b>10</b>	<b>13</b>	<b>16</b>	<b>15</b>	



- Beste honetan kontuak serioagoak dira: diruaz arituko gara!



- Zenbat ordaindu beharko dugu, 4 geranio erosi nahi baditugu?
- Bost arrosa erosi nahi baditugu, zenbat?
- Zenbat gehiago balio du tulipanak geranioak baino?
- Hiru kaktus erosi nahi baditugu, zenbat?
- Geranio bat eta kaktus bat erosi nahi baditugu, zenbat?
- Sei lilipa erosi nahi baditugu, zenbat?

## BESTERIK NAHI?

Animaliak eta landareak ipuin eta istorio fantastiko askoren protagonista izan ohi dira. Aspaldi ikusi izan dugu gizakiok geure buruaren nolabaiteko ispilua beraiengan.

Euskaraz ere ugariak dira horrelako kontakizunak. Batzuk tradizionalak dira, beste batzuk berriagoak eta beste batzuk... oraindik asmatu gabeak! Izan ere, ataza

honetan horixe proposatuko baitizugu:

zeure seme-alabentzat ipuin

bat asmatzea.



1

Segur aski, gehienak ibiliak zarete ipuinak kontatzen. Beharrak aginduta, noski! Baina denok ez ditugu berdin kontatzen. Ikus dezagun zein den zuen estiloa!

- Taldean jarri, eta hitz egin zeuen artean kontu hauei buruz.

- **Zer egiten duzu: ipuinak kontatu, ala irakurri?**
- **Nolako ipuinak dituzue gustuko? Eta zeuen haurrek?**
- **Gustuko al duzu ipuinak asmatzea? Zergatik?**
- **Zer nahiago dute zeuen seme-alabek: ipuina ala pasadizoa?**

- Hemen dituzue adituek ematen dizkiguten hainbat aholku. Irakurri, eta adierazi ea zaintzen dituzuen ala ez.

## ZENBAIT GOMENDIO

1.- Ipuin bat kontatzeko beharrezkoa da kontatzailearen gustukoa izatea; azken finean, ipuina kontatzen goza dezan. Ipuin bati xarmentasunik aurkitzen ez badiogu, ona dela esan badigute ere, alferrik izango da kontatzeko ahalegina egitea. Seguruenik, haurrei ere ez zaie gustatuko, ez baikara magiarik igortzeko gai izango.

2.- Edozeinek konta dezake ipuinen bat, baldin eta alde zurretik pixka bat prestatzen badu. Hasteko, ipuina ondo ikasi behar da buruz, eta, ondoren, inguruko haurrekin froga batzuk egin litezke: arreba txikiarekin, auzokoaren semearekin... Ongi atera baldin bada, eta beldurra galdu ondoren, ipuina haur-talde bati kontatzeko moduan egongo zara.

3.- Ipuinak ez dira hitzen bidez bakarrik kontatzen: keinuak, begiak, eskuak... denak balio du kontatzen ari garena adierazkorrago egiteko. Era berean, oso garrantzitsua da ahotsaren doinua. Ipuina bizi izango bagenu bezala kontatu behar dugu, entzulearen arreta ez galtzeko.

4.- Ipuin-mota ezberdinak kontatu behar dira. Hoberena da denetik pixka bat ematea: ipuin herrikoiak eta modernoak, animalienak eta gizakienak, fantasia handikoak edo errealistagoak, etab. Liburuekin gertatzen den gauza bera gertatzen da: hobe da idazle desberdin ugari eta estilo desberdinak ezagutzea, genero edo estilo berera mugatzea baino.

*Seve Calleja / Antton Irusta*

- Orain entzungo dituzue hainbat guraso horri buruz hizketan. Jarri taldeka. Entzun arretaz, eta zuetako bakoitzak jaso dezala gai hauetako bati buruz tertulian dauden gurasoek diotena.

- Nolako gaiak izan ohi dituzte beren haurrei kontaktzen dizkieten ipuinek?
- Nolako ezaugarriak izan ohi dituzte ipuinek (irakurriak, laburrak...)?
- Zer du on ipuin-kontaktetarako?
- Trukatu informazioa, eta adierazi zeuen esperientzia bertsua den ala ez.
- Idatzi Seve Calleja eta Antton Irustak egindako gomendioei beste bi edo hiru, zeuen esperientziak eta tertuliako gurasoenak kontuan hartuta.

## 2

Gehienetan, ipuinak irakurri egiten dizkiegu haurrei. Ondo irakurtzea, ostera, ez da oso erraza: intonazioa, keinuak... garrantzitsuak dira. Are gehiago, alegia klasikoak irakurri behar baditugu. ELHUYAR-ek argitaraturiko ANIMALIAK CD-ROMean hainbat alegia klasiko ere entzun daitezke. Alegia horietako gehienak lelo baten bidez amaitzen dira. Lelo hori olerki moduan azaltzen da.

- Taldeka jarri, eta irakurri irakasleak emango dizuen olerkia. Argitu esanahia, eta erabaki zein alegia klasikori dagokion.
- Taldeak berrantolatu, eta elkartu olerki ezberdinak dituzuenak launaka. Bakoitzak bere olerkia irakurriko du ozenki, eta besteek asmatu egin beharko dute zein alegiari dagokion.
- Zer iruditzen zaizue igarkizun hau zeuen seme-alabei proposatzea? Seguruenik entzunak izango dituzte alegia horiek, baina beste modu batera kontaktuta. Jokoaren ondoren, ipuin osoa irakur dezakezue (behar izanez gero, irakasleak emango dizue) edota CD-ROMean bilatu eta entzun.

## 3

Haur eta guraso batzuek nahiago izaten dute ipuina beren hitzetan kontaktzea, irakurtzea baino gehiago. Hori ez da oso zaila, adibidez, liburuek irudi ugari dituztenean.

- Hemen dituzu ZUHAITZ BATEN HISTORIA ipuinaren irudiak. Jarri taldeka, eta pentsatu zein den ipuin honen gidioia.





- Orain, irakasleak ipuina irakurriko dizue. Entzun, eta alderatu zeuek imajinatutakoarekin. Zeinen gidoia izan da antzekoena?
- Binaka jarri, eta kontatu ipuina, irudiei jarraiki. Batek konta dezala jatorrizkoaren gidoia gogoan izanda; besteak, berriz, konta dezala taldean asmatutako gidoia erabilita.
- Taldean adierazi zer moduz jardun duzuen eta nola ikusten duzuen hobeto zeuen burua: irakurketan ala kontaktetan.

4

Proba egin dugu ipuinak modu ezberdinetan kontatzen. Orain, kontatu bakarrik ez, asmatu ere egingo dugu ipuin bat geure seme-alabentzat. Protagonistak, noski, animaliak eta landareak izango dira. Geure sormena bultzatzeko, Seve Callejak eta Antton Irustak "IPUINEN TAILERRA" liburuan proposatzen dituzten hainbat teknika erabiliko ditugu.

- Hemen dituzu ipuinak asmatzeko hiru prozedura ezberdin. Azalpenak "Ipuinen Tailerra" liburukoak dira. Zein azalpen ote dagokio teknika bakoitzari?

	AZALPENA
<b>Katea narratiboa</b>	
<b>Zergatien ipuinak</b>	
<b>Ipuin polinomikoak</b>	

A.

Ipuin tradizioaletan berezkoak eta ugari ere ugariak izan dira mota honetako ipuinak. Kontakizunotan, antzinako kultura guztiak munduari buruzko azalpenak ematen ahalegindu dira, hurbileko gertaera naturalen zergatiak eman dituzte. (...)

Baina ez daukagu zertan antzinako folklorera jo, mota honetako kontakizun bizi-biziak aurkezteko. (...) Ikasleak gertaerarik arruntenak ahalik eta harrigarri edo barregarrien kontatzen ahaleginduko dira.

B.

Narrazio bati forma ematen dion galdera-erantzun batzuetatik abiatzen gara: nor zen, non zegoen, zer egiten zuen, zer esan zuen, zer erantzun zuen jendeak, zelan amaitu zen dena...

Taldeko lehenengoak lehen itaunari erantzun, eta papera tolestuko du, erantzuna inork irakur ez dezan. Bigarrenak bigarren itaunari erantzun, eta honek ere papera tolestuko du. Eta horrela egingo dute den-denek, itaunak amaitu arte. (...)

Erantzunak irakurri egiten dira, barre egin, eta horixe da dena. Edo, osterantzean, lortutako egoera aztertzen da, bertatik istorio bat ateratzeko.

C.

Kontua hauxe da: han-hor-hemen zabal dauden eta itsu-itsuan aukeratu diren elementu batzuekin kontakizun bat asmatzea, beti ere narratzailearen logika eta irudimena erabiliz.

- Hiru taldetan antolatu. Talde bakoitzak fitxa bat hartuko du, eta, egokitu zaion teknika erabilita, ipuin bat asmatuko du.

### KATEA NARRATIBOA

1. Bazen behin ardi txiki bat
2. Perretxikotara zihoan
3. Norbaitek perretxiko bila mendira joango zela esan zuen
4. Ni ez naiz kanpotarra, hemengoa baizik
5. Ezkondu egin ziren eta zoriontsu bizi

### ZERGATIEN IPUINA

Zergatik errinozeroek adar bat baino ez dute?

### IPUIN POLINOMIKOA

Zaldia  
Diamanteak  
Erlojua

5

Ipuin-kontaktarena gustuko baduzu eta egindako lanak gogoan piztu badizu, seguru asko, izugarri gozatuko duzu "On Mielen Aholkuak" ipuina irakurtzen. Irakasleak emango dizun ipuinean ipuin-kontalari ona izan nahi zuen gazte baten inguruko pasadizoa irakurtzeko aukera izango duzu.

## AUTOEBALUAZIO-ORRIA

1. Unitate honetan, animalien eta landareen izen ugari ikusi ditugu. Ea buruan dituzun izen hauek.

Gernikako arbola.	
Papera egiteko gehienbat erabiltzen den zuhaitza.	
Sagarrak ematen ditu.	
Sukaldaritzan erabiltzen den belarra; Argiñanoren oso gustukoa.	
Yoggy du izena.	
Bageera du izena (Ohianeko liburua)	
BUGS BUNNY du izena.	
Otsoa eta hiru .....	
Otsoa eta zazpi .....	
..... eta dortoka.	
Harriak arrastaka eramaten ditu Euskal Herriko dema ezagun batean.	
Bermeoko festetan joko batean erabiltzen dituzte.	
TOM katua eta JERRY....	
Aralar mendikatean libre aurkituko dugun zaldikoa.	
Lacoste markako jantzietan agertzen da.	
Hiru hosto dituen belarra; lauhoak zorte ona ematen omen du.	
Urtean lehen aldiz bere kantua entzutean, urte oparora dakarrela pentsatzen da, poltsikoan dirua eramanez aera.	
Itsas aldeko hegaztia; bere hegaldiaren bidez jakin omen daiteke nolako eguraldia datorren.	

2. Unitate honetan, natur zientzietako testuekin egin dugu lan. Ikusitakoaren arabera, esan jarraian ematen diren irizpideetatik zeinekin zauden ados eta zeinekin ez:

- Garrantzitsua da hiztegi berezia ezagutzea.
- Testu hauek ez dute izaten oso egitura zaindua.
- Testuekin batera datozen diagramak eta irudiak testuak atsegina egiteko izaten dira.
- Kontzeptu arrotzak edo zailak argitzeko, azalpenez hornitzen dira.

3. C ATAZAN ikusi dugu nola taxutu behar den testu bat, jendea zerbaitetaz konbentzitu nahi badugu. Zerrendatu hemen jarraibide garrantzitsuenak.

4. Unitate honetan, ipuin bat asmatzen ahalegindu gara, haurrari jakintza-gai baten inguruko kontuak hobeto ulertarazteko. Ideia egokia iruditzen zaizu 8-12 urteko haurrentzat? Hitz egin horretaz.

5. Baloratu 1etik 10era.

Landu dugun gaia interesgarria izan da.	
Erabili ditugun testuak gustatu zaizkit.	
Eman diren aholkuak baliagarriak dira.	
Gomendatu dituzten multimedia, aldizkari eta liburuak baliagarriak dira.	
Neure parte-hartzea.	
Haurrekin egiteko ideia praktikoak.	



# ANIMALIAK CD-ROMAREN GIDALIBURUA

## A fitxa

### Nola bidaiatu

**Fitxa nagusiak**

**Letrak, fitxaren izenburuak eta testuak ahotsa dute. Bertan klik eginez gero, idatzitako informazioa entzun ahal izango du haurrak.**

Animaliaren gainean klik eginez gero, ustekabeko bat izango duzu beti!



**Ikono honek <sup>eguztana</sup> animalia zein klasetakoa den esango dizu eta sailkapen-taulara eramango zaitu.**


**Ikonoa "nire lehen entziklopedia" aplikaziotik irteteko bakarrik erabili behar duzu, baina erabaki hau ziurtatu egin beharko duzu beti. Ziurtatzeko aukera hau izatea oso egokia da aplikaziotik irteteko erabakia nahastuta hartzen denean.**

**Aurreko orrialdera joateko ezkeraldera begira dagoen igelaren ikonoa erabili behar duzu.**

**Beldarraren buruak aurkibidera eramango zaitu.**

**Hurrengo orrialdera pasatzeko eskuinaldera begira dagoen igelaren ikonoa erabili behar duzu.**

**Zerrenda horretako edozein animaliaren gainean klik eginda, horren fitxarako sarbidea izango duzu.**



**Barra alfabetikoa fitxa guztietan topatuko duzu; berak hautatutako letraz hasten diren animalien zerrendara eramango zaitu.**

**Gezia esku bilakatzen den aldi oro, klik egin dezakezu! Aurrera, ustekabez beterik dago eta!**



B fitxa

**Sailkapen-pantailak**

Ikono hauek hautatutako klasekoak diren animaliak ezagutzen lagunduko digute.

Ikono hauek hautatutako ingurunean ibiltzen diren animaliak ezagutzen lagunduko digute.

Barra alfabetikoak eta igelek hautatutako klasearen barruan fitxaz fitxa ibiltzen lagunduko digute.

Irudian mugituz gero, klasea eta ingurunea gurutza daitezke.

"nire lehen entziklopedia"-n erabilitako termino bereziak lexikoan definitzen dira. Ikono hauek bakoitzean klik egin eta definizioa lortuko duzu.

Orrialdearen beheko ertzean klik eginda hurrengo orrialdera pasako zara.

C fitxa

**Gehiago jakiteko**



Sator txikia fitxa batzuetan baino ez da agertzen; botoi honek informazio osagarria eramango zaitu, dela dokumentazio osagarria dela animaliarekin loturiko esaldi eta esamoldeetara.



Tukan bakoitzak marrazkiari dagokion entzunezko informazioa aktibatzen du.

Animaliaren gainean klik eginda fitxara itzultzen da.



Irudi hauetako bakoitzean klik eginda, berari dagokion esaera edo esamoldeari buruzko informazioa lortuko da.

Animaliaren gainean klik eginda fitxara itzultzen da.



Animalia European bizi ez denean, animaliaren bizilekua erakusten duen planisferiora eramango gaitu mapa mundiak.



Oraindik ere gehiago jakin nahi baduzu iparrorratzean klik egin.

Animaliaren gainean klik eginda fitxara itzultzen da.



Fitxa batean botoi hau topatzen baduzu, bertan klik egin eta hautatutako animaliaren ingurunea ezagutuko duzu.



Animalia hauetako bakoitzean klik eginez gero bakoitzaren fitxara joango zara.



## D fitxa

## Jokoak



Untxiaren gainean klik eginda, hiru joko jarriko dizkizu aukeran.

## Oroimena

Haurrak animalia bakoitza bere oihuarekin lotu behar du. Hiztegia modu atseginean bereganatzeko aukera paregabea inondik ere!

\*nire lehen entziklopedia\*-ko fitxetara itzultzeko.

Jokoekin segitzeko.



## Nor da hau?


Irakurtzen ez dakien haurrak erabili ahal izango du joko hau; fitxen izenburretan ikusi eta gogoratzen duenarekin osatu beharko du irudia, behatzeko ahalmena eta oroimena astinduz.



## Familiak

Hirietan ia galdurik, edo galtzean, dagoen hiztegia osatu eta borobiltzeko jokoak.





# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Eusko Jauriaritzako erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



ISBN 84-95827-10-7



9 788495 827104